

AV 2 08

Santomasak Altzan



*Egin zuten Donostira
gauz dana bialdu
eta herriari traizioz
berezitasuna kendu;
lehengo kutsua, hala ere,
Altzak ez du galdu,
etzekiten nortasuna
ezin dela saldu.*

(Xanti Zapirain)



(Altza 1942)

Josu Artetxe enparantzan!

EGITARAUA

- 11.00—etatik aurrera eta egun osoan zehar Altzako baserritarren produktu zein abereez osatutako azoka egongo da. Bertan txistorra, talo, ardo edota sagardorik ez da faltako!
* Baserri partehartzaileak; Artxipi, Artzaka, Pelegriñene, Miravales, Udariz, Bordatxo eta Amueder.
- 12.00—etan, Herri—Ametsa ikastolaren eskutik, euskal dantzak ikusgai izango dira.
- 18.00—etan, bertso triki poteoari hasiera emango zaio, zatoz Altzako euskal giroaz gozatzera!
- 20.00—etan, ZOZKETA! Txerriari dagozkion produktu ezberdinez osatutako saski ederra. (Egun osoan zehar tabernetan naiz azokan salgai egongo dira txartelak).

EUSKAL HERRIKO BASERRIAK GAINBEHERA!!

...eta gu euskaldunok besoak gurutzatuta gelditzen gara, istorio horiek gurekin zerikusirik izango ez balute bezala. Denbora gutxian euskal gizarteak bere JATORRIA ahaztu eta baloreak galdu ditu, erabat hiritartuz eta bere jatorria era folklorikoan bakarrik gogoratuz. Apustu egiteko garaia da Euskal Herrian, geure nekazaritza PROPIO eta BIZI baten alde, barne merkatuan oinarrituko dena eta ingurugiroaren orekari eutsiko diona. eta ez aldiz mundu mailan eta hemen gure "jauntxoek" ahalbideratu eta ezarri nahi duten sistema liberalean oinarritutako nekazaritza.

GURE ETXALDE ETA LURRAK DEFENDA DITZAGUN!!

*Oharra: Kontsumitzaile bezala, guk ere badugu gure arduraren istorio guzti honetan, EROSTERAKOAN KRITERIODUNAK izan gaitzen.

PROGRAMA

- 11.00—A partir de esta hora y durante todo el día, se podrá disfrutar de la feria de productos y animales de los caseríos de Altza. No faltará chistorra, talo, sidra,...!
* Artxipi, Artzaka, Pelegriñene, Miravales, Udariz, Bordatxo y Amueder, serán los caseríos participantes.
- 12.00—Bailes vascos de la mano de la ikastola Herri—Ametsa.
- 18.00—Se dará comienzo al bertso—triki—poteo, ánimo y participa!
- 20.00—SORTEO! una hermosa cesta repleta de diversos productos del cerdo. (Las rifas estarán en venta durante todo el día tanto en la feria como en los bares).

DECAEN LOS CASERÍOS DE EUSKAL HERRIA!!

...y nosotr@s l@s vasc@s nos quedamos de brazos cruzados, como si esta historia no tuviera nada que ver con nosotr@s. En poco tiempo, la sociedad vasca a olvidado sus raíces y perdido los valores, cegándose en las ciudades y basándose en recordar de manera folclórica sus costumbres. Es hora de apostar por una agricultura PROPIA en Euskal Herria basada en un mercado interno, la cual ayudará a mantener el equilibrio con el medioambiente, y no en cambio esa agricultura basada en el sistema liberal que nos quieren imponer los "gobernantes" tanto aquí como en el resto del mundo.

DEFENDAMOS NUESTRA TIERRA!

*Nota: como consumidor@s que somos, nosotr@s también tenemos responsabilidades en esta historia, actuemos con CRITERIO A LA HORA DE COMPRAR!!

SANTOMAS EGUNA, ERRENTA EGUNA

Gaurko egunak, hirian ospatzen diren beste jai askoren antzera, bere istorio berezia du. Abenduak 21, egun horrek eguberrien sarrera alai dakarkigu. Hala ere, datu sinboliko horretaz gain, iragan mendearen erdialdean nabarmentzen hasi zen Santo Tomas eguna inguruko baserritarren artean.

Donostian bizi ziren jauntxoek beren baserriak eta lursailak hiritik kanpo zeuzkaten, eta noski, bertan bizi ziren baserritar maizterrek urtero errenta ordaindu behar zuten. 1727. urtetik jauntxoek egun hau aukeratu zuten ordainketa egun izateko eta, horregatik, Santo Tomas egunean hainbat eta hainbat baserritar biltzen zen hirian edota herri nagusietan, sona gehienekoak, Donostia, Azpeitia, Bilbo, Arrasate eta Zumarraga izanik, naiz azkeneko honetan baserritarren jai nagusia hilaren 13an izan.

Ohiturari jarraituz, Donostiara joaten ziren baseritarrek errenta eskuan, diruz ordaintzeaz gain, jeneroz ere ordaintzen zuten, kapoi eder pare batekin joaten baitziren nagusiaren etxera. Nagusiak, errenta jaso ondoren, bazkaria prestatzen zuen baserritarrentzat; normalean bakailaoa izaten zen bazkalorduko plater nagusia. Postre garaian, jauntxoek hartzen zuten parte bilkuran, eta hau zen edozein bapateko bertsolarik aukeratzen zuen unea, bizitza zein garesti zegoen edota errenta zein altua zen salatzeko. Festaren ostean, baserritarrak ferian azken bira emanda "Antzoki Zaharrera" joaten ziren Toribio Alzagaren antzerkia ikustera.

Feriaren sorrera

Errenta ordaintzeaz gain, beste gauza batzuk egiteko ere aprobetxatzen zuten, kontuan harturik, gainera, Eguberriko festak ere oso gertu zeudela. Hala, mendi girotik zetozenak beren inguruan aurkitzen ez zituzten produktuak erosteko aprobetxatzen zuten Donostian. Haietako askok ere urtean baratzean hazitakoak ere hirira ekartzen zituzten bertan saltzeko.

Erosketa eta salmenta modu normalizatu batean egin ahal izateko, Santo Tomaseko feria sortu zen. Mende honen hasieran gauzak aldatuz joan ziren. Izan ere, baserritar askok lurrak eta baserriak erosi zituzten, eta beraz, ez zuten inolako errenta ordaindu behar. Hala ere, feriak indarra hartu zuen baserritarren artean, eta orduetik Santo Tomas eguna baserritarren eguna da.

LA FERIA DE SANTO TOMAS

El día de hoy, como otras muchas fiestas que se celebran en la ciudad, tiene una historia especial.

En diciembre los baserritarras bajaban a la ciudad a saldar las deudas y arriendos con los dueños de los caseríos. Desde el año 1727, en Donostia el pago se realizaba el día de Santo Tomás. Tras el pago, los dueños les correspondían con una suculenta comida. Aparte de dichos pagos, solía vivirse un ambiente de compra-venta de diversos productos, formalizándose esta, fué como comenzó la feria de Santo Tomás.

Hoy por suerte no es día de rentas sino de fiesta.



Gaur egun eskerrak, Santo Tomas eguna ez da errenta eguna, festa eguna baizik.